

**10/2018 TXOSTENA, UZTAILAREN 26KOA, KONTRATAZIO  
PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEAREN OSOKO BILKURAKOA****XEDEA: INGURUMEN ADMINISTRAZIOARI BURUZKO LEGEAREN  
AURREPROIEKTUA****I.- AURREKARIAK.**

3/1998 Legeak, otsailaren 27koak, Euskadiko Ingurumena Babestekoak, baliabideen arloa nahiz ingurumen-politikako jarduketan zein tresnen antolamendua arautzen zituen.

Alabaina, europar araudiak nabarmen atzean utzi du araudi hori, hala uraren, airearen eta biodibertsitatearen arloetan, nola administrazioak sektoreko jarduketa ekonomikoetan duen esku-hartzean. Batasuneko Justizia Auzitegiak ere hainbat irizpen eman ditu aplikazio-printzipioei, baimen-prozedurei eta abarrei buruz.

Bestalde, geroagoko Estatuko eta erkidegoko araudiek ingurumen-alderdiak nabarmentzen dituzte, eta kontuan hartzekoak dira, esaterako, ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea eta hondakinen eta lurzoru kutsatuen gaineko uztailearen 28ko 22/2011 Legea edota lurzoruari eta hirigintzari buruzko Estatuko nahiz erkidegoko arauak.

Halaber, Uren 1/2006 Legeak, ekainaren 23koak, aldaketak behar izan ditu, eta, horretarako, ingurumen-arloko lege bat osatu behar izan da.

Horiek horrela, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko Lege berri baten aurreproiektuaren premian gaude, aipatutako 3/1998 Legea ordeztzeko, eta, era berean, ingurumenari loturiko jarduketa ekonomikoak eta lehenagoko eskubide pribatuak babesteko, betiere, ingurumen-kalitatea kaltetu eta klima-aldaketaren eraginak areagotu gabe.

Lege berriak erantzukidetasun publiko-pribatua bultzatzea du xede, eta berrikuntza, ekoeraginkortasuna eta erosketa publiko berdea sustatzea. Alderdi horien gaineko manuetan aipatzen da kontratazio publikoa, eta, beraz, dagokien txostena egitea eskatu zaio aholku-batzorde honi.

## II. – ALDEZ AURREKO GOGOETAK

### TXOSTENA EMATEKO ESKUMENA

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak 11. artikuluan xedatzen du nahitaezko txostenak eta kontsulta-organoen irizpenak izapide hori arautzen duten xedapenek ezarritako unean eta eran eskatuko direla.

Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eskumena du aipatutako arauaren proiektuari buruzko txostena egiteko; izan ere, horrek eragina du kontratazio publikoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27. artikulua a) letraren 1. zenbakian xedatutakoari jarraikiz.

«27. artikulua.- Aholkularitza-eginkizunak.

Aholkularitza-eginkizuna betetzean, hauek egitea dagokio Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari:

a) Honako hauei buruz nahitaez informatzea:

- 1.- Kontratazio publikoaren alorreko edo haren eremuan eragiten dutenei buruzko xedapen orokorren proiektuak edo aurreproiektuak, Gobernu Kontseiluak edo hango sailburuek onartu beharrekoak».

Xedapen-proiektua denez eta ez denez horren xedea sektore publikoko erakundeak sortzea edota Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen egitura organiko eta funtzionalak arautzea, 116/2016 Dekretuaren 30. artikuluaekin bat, txostena onartzeko eskumena Aholku Batzordearen Osoko Bilkurari dagokio.

## III. – EDUKIA.

Lege-proiektuak 9 titulu ditu, 116. artikuluaekin; azken zatia 1 xedapen gehigarri, 2 xedapen iragankorrez, xedapen indargabetzaile batez eta amaierako 6 xedapenez osatuta dago.

Baimenen, lizentzien edo jakinarazpenen mendeko instalazioak eta jarduketak jasota dauden eranskinak atxiki dira, hala nola ingurumen-ebaluazio sinplifikatua edo arrunta egin beharreko planak, programak eta proiektuak.

Tituluen edukia hau da:

- I. Xedapen orokorrak
- II. Autonomia-erkidegoko, foru-administrazioetako eta toki-administrazioetako erakunde erkideen ingurumen-arloko eskumenak
- III. Informazioa, parte-hartze publikoa eta ingurumen-justiziarako sarbidea
- IV. Ingurumenean eragina duten jardueren antolamendua
- V. Ingurumen-ebaluazioa

- VI. Ingurumen-hobekuntza sustatzeko tresnak
- VII. Ingurumen-kontrola
- VIII. Ingurumen-legezketasuna eta ingurumen-kalteengatiko erantzukizuna berrezartzea
- IX. Ingurumen-diziplina

#### **IV.- GOGOETA JURIDIKOAK.**

Aurreproiektuaren testuan, eta txosten honen aztergaiari dagokionez, puntu hauetan jasotako kontratazio publikoari buruzko aipamenak nabarmentzen dira:

Hasteko, zioen azalpenean bertan, kontratu publikoen ingurumen-arloko ez-betetze astunek edo oso astunek duten garrantzia aipatzen da, esaterako, IX. Titulua aurreratzen duenean: «...debeakututa izango dute administrazio publikoarekin kontraturik egitea...arau-hauste astunak edo oso astunak egin dituztenek...». Aurrerago ikusiko dugunez, zehaztapen zenbait egin behar zaizkio IX. Titulu horri, eta, ondorioz, zioen azalpenean bertan jasota geratu beharko dira.

Beraz, artikuluei gagozkiela, zehaztapen hauek egin behar dira:

LEHENA. VI. Tituluaren barne dagoen 78. artikulua, «Ingurumenaren auditoretza eta kudeaketarako sistema komunitarioan (EMAS) parte hartzea bultzatzea» –titulu berekoak dira aurrerago aipatuko ditugun 79.etik 82.era artekoak–, honakoa dio:

“1. Administrazio publikoek Euskadiko autonomia-erkidegoko erakundeak ingurumenaren auditoretza eta kudeaketarako sistemara (EMAS) –Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko azaroaren 25eko 1221/2009 (EE) Erregelamenduak arautua– modu boluntarioan atxikitzea sustatuko dute.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoa betearazteko, neurri hauek hartuko dira:

[...]

e) Kontratazio publikoko prozeduretan sistemara atxikitzeke irizpidea txertatzea, sektore publikoko kontratuen arloko araudiak ezarritakoaren arabera».

Hala bada, 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena (aurrerantzean, SPKL) aipatu behar dugu; horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora. Honakoa dio:

«94. artikulua. Ingurumen-kudeaketako arauak betetzen direla frogatzea.

1. Erregulazio harmonizatuko kontratuetan, kontratazio-organoek, kaudimen teknikoa edo profesionala egiaztatze aldera, lizitatzailleak ingurumen-kudeaketako arau jakin batzuk betetzen dituela frogatzeko erakunde independenteek emandako ziurtagiriak eskatzen badituzte, erreferentzia egingo diete Europar Batasuneko ingurumen-kudeaketako eta -ikuskaritzako sistemari (EMAS) edo 2009ko azaroaren 25eko 1221/2009 Erregelamenduaren (EE) 45. artikuluekin bat datozen ingurumen-kudeaketako beste sistema batzuei edo ingurumen-kudeaketako beste arau batzuei, egiaztatutako erakundeei dagozkien Europar Batasuneko edo nazioarteko arauetan oinarritzen direnak.
2. Kontratazio-organoek onartu egingo dituzte Europar Batasuneko edozein estatutako organismok emandako ziurtagiri baliokideak, eta ingurumena kudeatzeko beste neurri baliokide batzuk ezarri dituztela frogatzeko lizitatzailleek aurkeztutako frogak ere onartuko dituzte; eta, bereziki, erabilitako ingurumen-kudeaketako neurrien deskribapena, baldin eta lizitatzailleak egiaztatzen badu neurri horiek eskatzen direnen parekoak direla, ingurumen-kudeaketako arau edo sistemarekin bat etorri».

Horrenbestez, tentuz ibili behar da Ingurumen Administrazioari buruzko lege-aurreproiektuaren 78. artikuluan adierazitako nahitaezkotasunarekin; izan ere, SPKLaren arabera, EMASen aipamena hautazkoa da, ingurumen-kudeaketako beste arau batzuen arabera ere egiaztatu ahal izango delako gaitasun teknikoa, bestelako ziurtagiri eta frogantza baliokide horiek SPKLa bera betetzen badute.

Bestelako ingurumen-kudeaketarako sistema batzuk ere onartzea lehia askearen printzipioaren ondorio da; hau da, kontratazio-prozeduretan parte hartzeko aukerak ezin dira mugatu kasuan kasuko legearen edo beste lege baten arabera erabat ezinbestekoak diren eskakizunak direla medio. Hain zuzen, printzipio hori da Europar Batasuneko zuzenbidearen oinarritzaren bat kontratazio-arloan. Hori horrela, batzorde honen iritzian, ezin da hobetsi gaitasuna egiaztatzeko sistema jakin bat, eta aurreproiektuaren 78. artikuluen 1. zenbakiaren e) letra berridaztea proposatzen da, era honetan:

«e) Kontratazio publikoaren araudiak eskaintzen duen aukera aintzat hartzea; hau da, gaitasun teknikoa edo profesionala egiaztatzeko, Europar Batasuneko ingurumenaren auditoretza eta kudeaketarako sistemari (EMAS) aipamen egiten dioten ziurtagiriak zein bestelako frogantza baliokideak aitortzea».

BIGARRENA. Aurreproiektuaren 79. artikulua, «Europar Batasuneko etiketa ekologikoaren erabilera sustatzea», 2. zenbakian, etiketa hori sustatzeko neurrien artean, honakoa aipatzen du:

«c) Kontratazio publikoko prozeduretan etiketa ekologikoaren erabilera txertatzea, sektore publikoko kontratuen arloko araudiak ezarritakoaren arabera».

SPKLak etiketa mota guztiak aipatzen ditu 127. artikuluan:

«127. artikulua. Etiketak.

1. Lege honen ondorioetarako, etiketa izango da dagozkion obrek, produktuek, zerbitzuek, prozesuek edo prozedurek baldintza jakin batzuk betetzen dituztela egiaztatzen duen edozein dokumentu, ziurtagiri edo egiaztigiri.
2. Kontratazio-organoek obrak, hornidurak edo zerbitzuak ezaugarri espezifikoekin – ingurumenarekin edo gizartearekin lotutakoak– eskuratzeko asmoa badute, preskripzio teknikoetan, adjudikazio-irizpideetan edo kontratua egikaritzeko baldintzetan, obrek, zerbitzuek edo hornidurek eskatzen diren ezaugarriak betetzen dituztela frogatzen duen etiketa espezifiko bat eskatu ahalgo dute. Etiketa horiek gizartearekin edo ingurumenarekin lotutakoak izan daitezke, baita nekazaritza edo abeltzaintza ekologikoarekin, bidezko merkataritzarekin edo genero-berdintasunarekin loturikoak eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarritzko konbentzioak betetzen dituztela bermatzen dituztenak ere, betiere, ondorengo baldintza guztiak betetzen badira:
  - a) a) Etiketa lortzeko eskatutako baldintzek kontratuaren xedearekin lotutako irizpideei soilik erreferentzia egitea eta irizpide horiek egokiak izatea obren, horniduren edo xede hori osatzen duten zerbitzuen ezaugarriak definitzeko.
  - b) b) Etiketak lortzeko eskatutako baldintzak objektiboki egiazta daitezkeen eta diskriminatzaileak ez diren irizpideetan oinarritzea.
  - c) Etiketak prozedura ireki eta garden bitartez onartzea, eta prozedura horretan alderdi interesdun guztiek parte hartzea, esaterako, gobernu-erakundeek, kontsumitzaileek, gizarte-solaskideek, ekoizleek, banatzaileek eta gobernu kanpoko erakundeek.
  - d) Etiketak alderdi interesdun guztiek eskuratzeko modukoak izatea.
  - e) Etiketak lortzeko baldintzak hirugarren batek ezarritakoak izatea, eta enpresaburuak horren gainean eragin erabakigarririk ez izatea.
  - f) Etiketei buruzko erreferentziek berrikuntza ez murriztea.

Etiketaren batek 2. zenbakiko b), c), d) eta e) letretan ezarritako baldintzak betetzen baditu, baina kontratuaren xedearekin lotuta ez dauden baldintzak ezartzen baditu, kontratazio-organoek ez dute etiketa hori eskatuko, baina, etiketa horren ordean, preskripzio teknikoak definitu ahal izango dituzte etiketa horretan zehaztutako zehaztapenak aipatuz edo, hala badagokio, etiketa horren zati batzuk aipa ditzakete, kontratuaren xedearekin lotuta dauden eta xede horren ezaugarriak definitzeko egokiak diren zatiak, hain zuzen ere.

3. Etiketa espezifiko bat eskatzen duten kontratazio-organoek obrek, hornidurek edo zerbitzuek etiketa espezifikoa lortzeko eskatzen diren baldintzen baliokideak direnak betetzen dituztela egiaztatzen dituzten etiketa guztiak onartu beharko dituzte.

Kontratazio-organoak beste frogantza-bide batzuk ere onartuko ditu, 128. artikuluan aipatutakoak barne, kontratista izangaiak eskaini beharreko obrek, hornigaiak edo zerbitzuek eskatutako etiketa espezifikoaren betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen badute.

4. Kontratazio-organoek pleguetan ez badute eskatzen obrek, hornidurek edo zerbitzuek etiketa lortzeko bete behar diren betekizun guztiak betetzea, berariaz bete beharreko eskakizunak zein diren zehaztuko du.
5. Nahiz eta zehaztapen teknikoetan etiketa espezifiko bat adierazi, kontratazio-organoak pleguetan argi eta garbi zehaztu behar ditu ezarri nahi dituen eta eskatutako etiketa espezifikoak betetzen direla frogatu nahi dituen ezaugarriak eta baldintzak.
6. Baliokidetasuna, betiere, hautagaiak edo lizitatzailleak frogatu beharko du».

Hala bada, SPKLak aukera ematen du –kasu honetan ere, ez du betebehar gisa ezartzen– kontratazio-prozeduretan etiketak eskatzeko –tartean, nekazaritza edo abeltzaintza ekologikoari loturikoak bereziki–, SPKLak berak ezarritako eskakizun espezifikoen arabera. Hau da, etiketa ekologikoak eska daitezke, baina kontratazio-organoak nahieran erabaki dezake eskatu edo ez. Aurreproiektuaren 79. artikulua 2. zenbakiaren c) letra honela berridaztea proposatzen da:

«c) Hala dagokionean, sektore publikoko kontratazioaren araudiak etiketa ekologikoak eskatzeko ematen duen aukera erabiltzea, araudi horretako eskakizunen arabera».

Aurreproiektuaren 80. artikulua ingurumen-aztarna eta bizi-zikloarekin duen erlazioa ditu hizpide. Elementu berria da hori sektore publikoko kontratuen araudian, eta gero eta gehiago hedatuko da. Ez da eragozpenik jarriko.

81. artikulua erosketak publiko berdeari buruzkoa da. Kontratazio publikoari dagokionez, honakoa dio:

2. Administrazio publikoetako eta sektore publikoko gainerako erakundeetako kontratazio-organoek beren obren, zerbitzuen eta horniduren kontratuetako administrazio-klausulen agirietan eta zehaztapen teknikoen agirietan bilduko dituzte lege honetan ezarritako helburuak lortzen laguntzen duten esleipen-irizpideak, betearazpen-baldintza bereziak eta klausulak edo baldintzak. Nagusiki, azpiproduktuak, bigarren mailako lehengaiak, material birziklatuak edo berrerabiltzeko prestatze-prozesuetako materialak bultzatuko dira. Horretarako, administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, jarraibide teknikoak eta antzeko agiriak egokituko dituzte artikulua honetan ezarritakoa betetzeko.
3. Obra- eta hornidura-kontratuak betetzeko klausula administratiboen agirietan eta zehaztapen tekniko partikularretan adieraziko dira kontratu horietako bakoitzean erabili behar diren azpiproduktuen, bigarren mailako lehengaien, material

birziklatuen edo berrerabiltzeko prestatze-prozesuetako materialen ehunekoak. Material horiek % 40 izan beharko dira gutxienez, justifikatutako arrazoi teknikoengatik ehunekoa murriztu behar bada salbu.

4. Halaber, kontrol-mekanismo egokiak ezarri beharko dira, eta, hala dagokionean, kontratu-agirietan ezarritako ingurumen-klausulak eta betearazpen-baldintzak behar bezala betetzea bermatzeko zigor-klausulak. Horretarako, kontratuen amaieran, materialon erabilerari buruzko justifikazio-agiriak atxiki beharko dituzte.
5. Artikulu honetan aurreikusitakoa sektore publikoko kontratuei buruzko legerian ezarritakoaren arabera gauzatuko da».

Gai horretan, gogoan izan behar da ingurumen-klausulak, SPKLak luze eta zabal jasotakoak eta batzorde honen orain gutxiko 2/2018 Gomendioan aztertutakoak, baimendu ez ezik, sustatu ere egin dituztela aipatutako araudi berriak eta gomendioak. Legeak horiek txertatzeko aukera aitortzen du, gizarte- eta berdintasun-klausulak txertatzekoa aitortzen duen bezala. Gure pleguak harago doaz, hizkuntza-klausulak ere barnean hartzen dituztenez. Baina betiere kontratuaren xedeari lotuta egotearen baldintzarekin, SPKLaren 145. artikuluan adierazitakoarekin bat. Horrenbestez, ez da zorrotz jokatu behar baldintza hori betetzea eskatzeko garaian, aipatutako gainerako alderdiei ere garrantzia eman behar zaie eta.

Gainera, SPKLaren 202. artikulua lehen apartatuan esaten denez, baldintza administratibo partikularren agiriek gutxienez betearazpen-baldintza berezi bat izan behar dute barnean, gizarte-arloko, etikoa, ingurumenekoa edo beste arloren batekoa, eta horien adibideak ematen ditu, nahitaezkoa horietatik bakar bat izatearen baldintzarekin.

Arazoa sor dezake kontratazioan aipatutako politika guztiei erantzuteko ezintasunak – beren garrantzi estrategikoa eta nahitaezko sustapena argi egon arren–; izan ere, praktikak, lizitatzailerik askok zailtasunak dituzte horiek betetzeko, eta ezin dira kontratatu edo ezin dute lizitazio-prozesuetan parte hartu. Hala, agerian geratzen da lehen aipatutako lehia askearen printzipioarekiko kontraesana. Horretaz gain, klausula horietako bat sartzen bada pleguetan, lehenik argi eta egituratuta eduki behar da eskatutakoa eta eskainitakoa erabat bete den edo ez egiaztatzeko kontrol-sistema eta zein eragin zehatz izango lukeen balizko ez-betetze batek edo akasduen betetze batek, kontratu-betekizunetako bat den aldetik.

Horiek horrela, 81. artikulua 2. zenbakia betetzea eskatzeko garaian malguago jokatu behar da, aurreko apartatuan bezala, eta nahitaezkoa bainoago hautazkoa dela gogorarazi behar da. 3. zenbakiko aginduari dagokionez, obren eta horniduren pleguetan, behin betiko ezabatu behar da «adieraziko dira» moldea, eta «adierazi ahalko dira» erabili, betiere, kontratuen betearazpenean erabili beharreko ehuneko horiek bete diren kontratu guztietan behar bestean erabili diren egiaztatzeko metodoak eta arduradunak aurreproiektuan bertan azalduta. Kontrara, paper gaineko

eskakizun baizik ez lirateke, eta ez legoke modurik betetzen diren kontrolatzeko, ez eta ez-betetzea frogatzeko ere. Horrek izugarri mugatuko luke lehia, eta kontratistaren ez-betetzeek ez lukete ondorioz izango; kontratuaren arduraduna kontrol-tresnen gabezia larrian legoke. Eta ezin da inola ere onartu.

Ondoren, lege-aurreproiektuak ekoberrikuntza lantzen du 82. artikuluan. Sustapena agindu ondoren, 2. zenbakiak honakoa dio:

«Ondore horietarako, Euskadiko autonomia-erkidegoko administrazio orokorraren barnean ingurumen-arloko sail eskudunak jarduera ekonomikoetan ingurumen-eraginkortasun areagoko teknologiak ezartzea sustatuko du. Horretarako, aldian-aldian, sektore publikoko kontratuetan sar daitezkeen teknologia erabilgarrien zerrenda bat onartu eta eguneratuko du, eta horiek erabiltzea lehentasunezko irizpidetzat hartu ahal izango da ingurumen-hobekuntzara bideratutako inbertsioak egiten dituzten enpresei onura fiskalak zein diru-laguntzak emateko garaian».

Sektore publikoko kontratuetan, teknologia horien erabilera nahitaezkoa bainoago hautazkoa denez, ez da eragozpenik jarriko.

Aurrerago, aurreproiektuaren VII. Tituluan, 112. artikulua kontratatzeke debekuak ditu hizpide:

«Lege honetan aurreikusitako arau-hauste astun edo oso astunen ondorioz zehapenik jaso duten enpresek ezin izango dute kontraturik egin Euskadiko autonomia-erkidegoko sektore publikoarekin, ezta haren diru-laguntzarik jaso ere, harik eta dagozkion neurri zuzentzaileak hartu eta zehapena bete arte».

Kontratatzeke debekuak luze eta zabal arautzen dituzte SPKLaren 71. artikulua eta ondorengoek, eta egia da hala ingurumen-arloko delituengatiko epai irmoak, nola ingurumeneko arau-hauste oso astunengatiko zehapen irmoak, edota 71. artikuluen 2. apartatuaren c) letran zehaztutako premisa jakin batzuen arabera kontratuaren oinarritzko baldintzak ez betetzeak –betearazpen-baldintza berezianak barne–, kontratatzeke debekutzat edo ezintasuntzat hartzen direla, 73. artikuluen baldintzen eta ondoreen eta 72. artikuluan adierazitako lehiaren eta prozeduraren arabera.

Artikulu horiek guztiak oinarritzkoak direnez, hau da, erkidego-mailako ordeko araubiderik izan ez dezaketanak, kontratatzeke debekua ekar dezaketen ez-betetzeetan edo zehapenetan zorrotz jokatu behar da, baita SPKLak barnean hartzen dituen ondorioetan eta salbuespenetan ere.

Horrenbestez, aurreproiektuaren 112. artikulua berridaztea proposatzen da, era honetan:

«Ez-betetzeen ondorioz epai edo zehapen irmoren bat jaso duten enpresek, edo kontratu baten oinarritzko klausulak bete ez dituztenek, betiere ingurumen-arloan eta kontratu publikoen araudiko eskakizunekin bat, ezingo dute kontraturik egin



Euskadiko autonomia-erkidegoko sektore publikoarekin, ez bada araudi horretan bertan zehazten diren salbuespen kasuetan.

Era berean, diru-laguntza publikoen araubidean ezarritakoa bete beharko da».

Amaitzeko, aurreproiektuaren azken xedapenetatik bigarrenak Uren Legea (1/2006, ekainaren 23koa) aldatzen du. Aldaketen artean, hamabigarrenak Uren Legearen 34. bis artikulua berridaztea proposatzen du, era honetan:

«34. bis artikulua. Hiri-erabilerako uraren ziklo integrala arautzeko toki-ordenantzak.

Hiri-erabilerako uraren ziklo integralaren zerbitzuko araubide juridikoa kasuan kasuko toki-ordenantzaren bidez arautuko da. Ordenantzok, Eusko Jaurlaritzak, Uraren Euskal Agentziaren proposamenez, zerbitzu horretarako agintzen duen esparru-erregelamendu arautzailearen arabera, alderdi hauek arautuko dituzte:

[...]

«d) Kontratazio-araubidearen ezaugarriak.

[...]»

Batzorde honek oker ulertu ez badu, ur-horniduraren zerbitzua kontratatzeko araubidez ari da, baina argi uztea komeni da, «kontratazio-araubidea» esanda, kontratazio publikoaz ari garela ulertzen baita, eta hori ezin da toki-ordenantza baten bidez arautu. Uraren sektoreko kontratazio publikoaren araubidea balitz, uraren, energiaren, garraiobideen eta posta-zerbitzuen kontratazio-prozedurei buruzko legeria legokioke.

## **V.- ONDORIOAK**

Horrenbestez, lerrootan iradokitako berridazketak aintzat hartzea espero duela, batzordeak lege-aurreproiektuaren aldeko irizpena ematen du.